

KRONIKA > LITERATURA ESKOLA

BONBERENEAN BILDUTAKOAK GRINAZ ARITU DIRA MIKEL LABOAREN HIZKUNTZEZ GOGOETAN



Maidier IANTZI

PATXI GAZTELUMENDIK ESKATU ZIEN LEIRE LOPEZ ZILUAGARI ETA IBON RODRIGUEZI MIKEL LABOAREN HITZEI BURUZ ZERBAIT ERRATEKO. BERAIEK, ORDEA, BERTZE IKUSPEGI BATETIK HELDU ZIOTEN GAIARI, IKUSPEGI ZABALAGO BATETIK, ETA MUSIKARI DONOSTIARRAREN HIZKUNTZEI BURUZ EGIN ZUTEN GOGOETA. JOXEAN ARTZEK AZALDU BEZALA, ARTISTA HONEK EZ BAITZUEN NAHIKOA HITZEKIN. HITZA BERE HIZKUNTZETAKO BAT BAINO EZ ZEN.

Lepo bete zen atzo goizean Tolosako Bonberenean Literatura Eskolako prestatutako gela, eta bildutakoek grinaz parte hartu zuten Leire Lopez Ziluagak eta Ibon Rodriguezek planteatutako gogoetetan. Berehala sortu ziren galderak eta desadostasunak. Musikaren eta hitzaren arteko harremanaren inguruan aritu zi-

ren aurrea. «Musika oso ona bada eta letra oso txarra, disko bat ona izan daiteke. Baina musika oso txarra bada eta hitzak oso onak, ez», baieztatu zuen Leirek. «Hitzak eta musika batzea da garrantzitsua, orduan da kantu bat magikoa», zehaztu zuen literaturazale batek. Agertu zuenez, ingelesezko kantu bat pila bat gustatzen ahal zaigu, letra ulertu ez arren, baina itzuli eta lelakeria bat dela konturatzen bagara, ez dugu hainbertze gogo izanen kantatzeko. Baina horrek zer erran nahi du, musikaz ehuneko ehunean gozatzeko hitzak ulertu beharra dagoela?

Galdera batek bertzerera eramaten zituen. Abestietan hitza bertze instrumentu bat baldin bada, hitza izateari uzten dio? «Ez, areagotu egiten da bere indarra, musikak emozio karga handiagoa ematen diolako», erantzun zuen batek. Bertze baten iritziz, hitzak musikatzean bideratu egiten dira, eta, beraz, interpretazioa librea da norberak musikatuko gabeko poema bat irakurtzen duenean. Hirugarren lagun batek ohartarazi zuenez, doinura baldintzatuz gero, hitzak galdu egin dezake.

Doinuak hitza gidatzen du eta gerta daiteke norabide okerrera eramatea. Dena den, Laboak ongi zuzendu zuen norabidea, letra eta musika primeran uztartuz. Horretan ados ziren denak.

Tolosako Bonberenea literaturazaleen bilgune izan zen atzo goizean.

Gari GARAIALDE | ARGAZKI PRESS

Azaldu zutenenez, Mikelen ekoizpenaren zati handi bat musikatutako hitzek osatzen dute, eta zerbaitegatik aukeratzen zituena hitz horiek, mezu bat transmititu nahi zuelako letretatik. Baina hitzezko mezuez gain, bertze batzuk ere helarazten zituen, bere minimalismoarekin adibidez. «Bizarra moztu bitarteko kantuak behar ditugu», adierazi zion «Argia» aldizkariari elkarrizketa batean, lehenbiziko disko txikia atera zuenean. Garrantzirik gabeko kantuak egin nahi zituena, «bizarra egin bitartean ezin delako bost ahotsentzako kanta bat kantatu».

«Kantu batzuetan, behin eta berriz errepikatzen ditu hitz berak, eta, ondorioz, mantra bat sortzen da; melodia perfektuaren bilaketa da, badoa harrotzen, azkenean oso gozo bukatu arte», agertu zuen Ibonek. Laurogei aldiz errepikatzen du hitz bera, baina gibelean gauzak gertatzen ari dira. Agian, hitza aldatuko balitz, musikaren aldaketak ez lirateke hain argi geldituko.

ZUBIA

Bataren eta bertzearen hitzak hartzen zituenez, Laboak ni ugari biltzen zituen bere kantuetan, baita leku eta denbora ugari ere. Hasieran, Gabriel Arestiren, Bertolt Brechten edota Xabier Leteren hitzetara jo zuen; geroago, Joseba Sarrionandiaren eta Bernardo Atxagaren testuetara. «Irakurri eta gogoko zuena hartzen zuen», azaldu zuen Rodriguezek. Aipatu zuenez, Arestiren «Gure aitaren etxea defendituko dut» musikatu nahian ibili zen, baina ez zen gustura gelditzen emaitzarekin eta ez zuen nahia bete.

Ibonek «Mikel Laboa: musika eta zubia» proiektua egin du, eta bertan jaso ditu donostiarraren kantagintzaren hiru atalak: olerki berriak, kantu tradizionalak eta esperimendazioa. Horiak bata bertzearekin nahasten dira. Adibidez, lekeitoetan herri kantak azaltzen dira eta kantu esperimentalen aztarna dute «Oroitzen zaitudanean, ama» bezalako kantuek. Zubiak eraiki zituen tradizioaren, modernitatearen eta postmodernitatearen artean.

Argiztapena, antzezpena eta agertokiko jarrera dira Laboaren bertze hizkuntza batzuk. Alde batean *performancea* egiten zuen, erdian gizarte modernoa islatzen zuen, eta, bertze aldean, eserita eta lasai, ume bati bezala, herri kantak kantatzen zituen.

Bertzeen lanak jaso zituen, eta bereak ere isla du lan berrietan. Gutxi batzuk aipatzeagatik hor dira Xabier Montoia, Joseba Irazoki, Anari, Xabier Erkizia edo Maialen Lujanbio. Honako galderarekin eman zioten amaiera eskolari: zergatik irauera dute, irauten badute, Laboaren kantuek? Hitzengatik izan daiteke, doinuengatik, sortu zituen testuinguruagatik, anitz zabaldu direlako edo ikasteko errazak direlako. Zuri zer iruditzen zaizu?

«Ezin da bizarra moztu bitartean bost ahotsentzako kanta bat kantatu», uste zuen artistak